



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus
Telefona: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

AKORDIO JAKINARAZPENA

NOTIFICACIÓN DE ACUERDO

IRTEERA-ERREGISTROA

Zkia

Data

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urtarrilaren 17an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

Araozko eskola berria ostatu bezala egokitzeko lanak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeko espedientea (891/esp)

Nekazaritza Teknikariak espedientearen aurrekariak laburbildu ditu:

.- 2017ko otsailaren 15ean Ingurumen eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, Araotz auzoak nesken eskola ostatu bezala egokitzeko eskaera aztertzen da.

.- 2017ko urriaren 25ean Ingurumen eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, Araozko nesken eskola ostatu bezala egokitzeko Auzoaren eta Udalaren arteko lankidetzaz jasotzen duen hitzarmen markoa aurkezten da.

.- 2017ko urriaren 31n Ingurumen eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, Araozko Eskola ostatu bezala egokitzeko aurreneko aukerak jasotzen duen dokumentua aurkezten da, Koldo Etxegarai arkitektoak idatzitakoa.

.- 2017ko urriaren 31n Araozko auzotarrek egindako bileran, hasierako onespena ematen diote lankidetzaz hitzarmenari.

.- 2018ko martxoaren 7an Ingurumen eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, Udalak EAEko G4, G5 eta G6 landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntza deialdira proiektua aurkeztea erabaki zuen.

.- 2018ko abuztuaren 3an EAEko G4, G5 eta G6 landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntza deialdiren ebazpena jasotzen da, non, 147.000€-ko dirulaguntza onartzen den.

.- 2018ko abuztuaren 3ko Alkate Dekretu bidez, Araozko Eskola ostatu bezala egokitzeko exekuzio-proiektua egiteko Koldo Etxegarai jaunaren aurrekontua onartzen da.

.- 2018ko irailaren 15ean Araozko auzotarrek egindako bileran, lankidetzaz hitzarmena onartzen dute: 24 boto alde eta 14 boto kontra.

.- 2018ko urtarrilaren 7an 1. fasearen exekuzio-proiektua aurkezten da, guztira 298.458,18 € BEZa barne.

Hori guztia kontuan izanda, orain Koldo Etxegarai arkitektoak idatzitako exekuzio-proiektua, baldintza plegu administratiboa eta obrak gauzatzeko kontratazio-espedienteak aurkeztu dira.

Laburbilduta, hauek dira espedientearen ezaugarri nagusiak:

- Gehienezko aurrekontua 246.659,65 € + 51.798,53 € BEZa dira, guztira 298.458,18 €.
- lote bakarra egin da
- Prozedura irekia sinplifikatua edo erraztua.
- Esleitzeko irizpideak %75 prezioa eta %25 irizpide subjektiboak
- Obrak gauzatzeko epea 6 hilabete

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun zein Ingurumen eta Landa Garapen Batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du obrak gauzatzeko kontratazio-espeditentea abian jartzea, barne hartzen dituen dokumentuak onartuz: exekuzio-proiektua, baldintza plegu administratiboa eta kontratazio-espeditentearen justifikazio-memoria, honako hau adieraziz:

.- Araotzeko eskola zaharraren lagapen-hitzarmenari lotuta geratzen da lizitazioa; hau da, urtarrileko Plenoan aztertu eta hartuko den eraikinaren lagapen-hitzarmenari lotuta geratzen da lizitazioa.

Oñatin, 2019ko urtarrilaren 25ean
Idazkariak



INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko

AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.